



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 10a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enpresek. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat onets eta betearaz dezan. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan San Adriángo Institutuan eskaintzen diren erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloi buruz. Hezkuntza Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko gobernuak urratsik egin ote duen plastikozko poltsen erabilera eta banaketa arautze aldera, Maiorga Ramírez Erro jaunak eginga (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (6. or.).
- Esteban Garijo Pérez jauna Ekonomia eta Ogasun Batzordeko kide izendatzea (7. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren erabakia, 2009ko azaroaren 9koa, Europar Batasunaren arau-proiektuetan subsidiaritatearen printzipioa kontrolatzeko prozedura arautzen duena (8. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2009ko urriaren 16an onetsitako erabakiak (10. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enpresekin.

BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak, 2009ko azaroaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enpresekin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enpresekin

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen sina ditzan beharrezkoak diren hitzarmenak gas naturala banatzen duten enpresekin, Lizarraldeko Ega ibarrean, Antzin eta Acedoko udalak barne, hornikuntza egokia izan dezaten, bai enpresek bai familiek, lehiakortasun industrial handiagoa lortzeko, enpresen kostuak murrizteko eta eskualde horretako biztanleen bizi kalitatea areagotzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat onets eta betearaz dezan.

BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak, 2009ko azaroaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat onets eta betearaz dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat onetsi eta betearaz dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Altsasun eta Sakanan langabeziaren aurka borrokatzeko eta ekonomia suspertzeko plan bat egin dezan, eskualde horretako toki

entitate, sindikatu eta eragile sozialekin lankidetzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan hori finantzatzeko kontusail berezi bat sar dezan Nafarroako aurrekontu orokorretan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen –sei hilbateko epean– egin dezan Zangituko eskualdeko industri-aldea.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan San Adriángo Institutuan eskaintzen diren erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloi buruz.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2009ko azaroaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan San Adriángo Institutuan eskaintzen diren erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloi buruz”. Horren jatorria da Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako mozio bat, 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan San Adriángo Institutuan eskaintzen diren erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloi buruz

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan San Adriángo EGA Bigarren Hezkuntzako Institutuaren hezkuntza eskaintza birformula dezan, betiere Hezkuntza Departamentuaren eta aipatu institutuaren zuzendaritzaren arteko lankidetzarekin.

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko gobernuak urratsik egin ote duen plastikozko poltsen erabilera eta banaketa arautze aldera.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko gobernuak urratsik egin ote duen plastikozko poltsen erabilera eta banaketa arautze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako gaurkotasun handiko galdera aurkeztu du, azaroaren 12rako eta 13rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahaz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak egin al du urratsik plastikozko poltsen erabilera eta banaketa arautze aldera?

Iruñean, 2009ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera –deialdia Comptos Ganberako lehendakariaren 2009ko abuztuaren 20ko ebazpenaz onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukatutik, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

a) *Onartuak:*

Aliaga Retabé, Eduardo
Arana Rey, Cristina
Azcona Díez de Ulzurrun, M^a Carmen
Bandrés Ardanaz, Sancho
Bretos Noain, Enrique
Buzunariz Berastegui, Edurne
Gainza Ordoqui, José M^a
García Cascante, M^a Esperanza
García Leranoz, Elisa
González de Castejón Hermoso, M^a Jesús
Iglesias López, María
Irigoyen Olaiz, Lourdes

Marticorena Chapa, Xabier Iñigo
Martínez Celaya, Olga
Martinikorena Matxain, Miren Edurne
Moreno Orduña, Karen
Moriones Rey, Silvia
Naya López, Enrique
Ondarra Erdocia, Rosario
Oyarzabal Zubieta, M^a Dolores
Pérez Remondegui, José Javier
Rodríguez Jiménez, Ainara
Ruíz de Gordo Ruíz de Alegria, Edurne
Sabalza Navallas, Marta
Samanes Yagüe, Cristina
Unzué Guruchaga, Adriana
Zalguizuri Soto, Jesús M^a

b) *Baztertuak:*

Bat ere ez.

Bigarrena. Deialdiko 4. oinarriko 4.2 idatz-zatiari jarraituz, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epean.

Hirugarrena. Agintzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2009ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Esteban Garijo Pérez jauna Ekonomia eta Ogasun Batzordeko kide izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Esteban Garijo Pérez jauna Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeko kide izendatu izana jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzaren erabakia, 2009ko azaroaren 9koa, Europar Batasunaren arau-proiektuetan subsidiaritatearen printzipioa kontrolatzeko prozedura arautzen duena.

Lisboako Itunaren ondoriozko Europar Batasunaren Itunaren testu bateratuaren 5. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatiek honela diote:

“3. Subsidiaritatearen printzipioaren arabera, bere eskumenen osokoak ez diren alorretan, Europar Batasunak soilik esku hartuko du baldin, eta halako neurritz non, estatu kideek ezin duten nahikotasunez lortu gauzatu nahi den ekintzaren helburua, ez estatu mailan, ez eskualde eta toki mailan, eta, aldiz, helburu hori, egin nahi den ekintzaren neurriagatik edo ondorioengatik, hobeto lor daitekeenean Europar Batasunaren mailan.

Europar Batasuneko erakundeek subsidiaritatearen printzipioa aplikatuko dute, Subsidiaritatearen eta Proporzionaltasunaren Printzipioen Aplikazioari buruzko Protokoloari jarraikiz. Legebiltzar nazionalak zainduko dute subsidiaritatearen printzipioa errespetatzen dela, aipatu protokoloan ezarritako prozedurari jarraikiz.

4. Proporzionaltasunaren printzipioaren arabera, Europar Batasunaren ekintzaren edukia eta forma ez dira urrunago joango itunetako helburuak lortzeko beharrezkoa dena baino.

Europar Batasuneko erakundeek proporzionaltasunaren printzipioa aplikatuko dute, Subsidiaritatearen eta Proporzionaltasunaren Printzipioen Aplikazioari buruzko Protokoloari jarraikiz.”

Aurreko idatz-zatietan aipatutako protokoloaren 6. artikulua lehenerok ondokoa ezartzen da:

“Legebiltzar nazional orok edo legebiltzar horietako ganbera orok, legegintzako egintza proiektu bat Batasuneko hizkuntza ofizialetan jaso eta zortzi asteko epean, irizpide arrazoitu bat igorri ahal die Europar Batasuneko lehendakariari, Kontseiluko lehendakariari eta Batzordeko lehendakariari, bertan azalduz zergatik bere ustez proiektua ez zaion subsidiaritatearen printzipioari egokitzen. Legebiltzar nazional bakoitzari edota

legebiltzar nazional horietako ganbara bakoitzari dagokio, legegintzako eskumenak dituzten erregio-legebiltzarrei kontsulta egitea, beharrezkoa denean.”

Europar Batasunaren Itunaren 5. artikuluko xedapenak aplikatze aldera, Gorte Nagusietako Europar Batasunerako Batzorde Mistoak onetsi zituen, 2009ko martxoaren 24ko Erabakiaren bidez, “Europar Batasuneko legegintzako ekimenek subsidiaritatearen printzipioa betetzen ote den egiaztatzeko kontrolaren gaineko entsegu pilotuak egiteko irizpideak” Haren 1. puntuak honela dio:

“1. Batzorde Mistoko idazkariak, legegintzako ekimena ganbaretan jaso bezain laster, posta elektronikoaren bidez igorriko die batzordekideei, bai eta autonomia erkidegoetako legebiltzarrei ere, eta kasu bakoitzean adieraziko da zein den oharrak edo arrazoitutako irizpen proposamenak egiteko epea.”

Autonomia erkidegoetako legebiltzarrei igorritako jakinarazpenetan emandako epea lau astekoa izan da. Hain zuzen, epe hori berretsi da Batzorde Mistoak bere lege arautzailea –8/1994 Legea– 2007ko abenduaren 13ko Lisboako Itunera egokitzeko onetsi duen irizpenean. Irizpen horren 6.2 artikulua honela dio:

“2. Kasua bada, autonomia erkidego bateko legebiltzarrak onesten duen irizpen arrazoitua aintzat hartu ahal izateko, beharrezkoa izanen da irizpen hori ganberetako batean jasotzea Gorte Nagusiek Europar Batasuneko legegintzako ekimena igorri eta lau asteko epean.”

Azalduetakoaren arabera, eta Nafarroako Parlamentuak egin ahal izan dezan Gorte Nagusiek igortzen dizkieten Europar Batasuneko legegintzako ekimenetan subsidiaritatearen printzipioa betetzen ote den egiaztatzeko kontrola, beharrezkoa da prozedura bat arautzea. Prozedura hori ondoko arauetan jasotakoa da, etorkizunean egin ahalko diren eguneratzeen kalterik gabe.

Horrenbestez, lehendakari honek, aldez aurretik Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, ondoko ERABAKIA hartu du:

Lehenengo artikulua.

Europar Batasuneko legegintzako ekimenetan subsidiaritatearen printzipioa betetzen ote den egiaztatzeko kontrola egiteko prozedura antolatuko duten arauak onetsi dira. Hona hemen arauak:

1. Europako Gaietako Lan-taldea, zeina osatuko baita Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuako Eledunaren Batzordearen barruan, izanen da organo eskuduna Gorte Nagusiek igortzen dituzten Europar Batasuneko legegintzako egintza proiektuek subsidiaritatearen printzipioa urratzen ote duten esateko .

2. 1. Europar Batasuneko legegintzako proposamen bat jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak aipatu lan-taldeko kideei igorriko die, posta elektronikoa bidez. Halaber, Nafarroako Gobernuari ere igorriko zaio, bide bera erabilita, Gobernuak, bi asteko epean, proposamenari buruzko txostena eman dezan, eta, zehazki, legegintzako ekimena subsidiaritatearen printzipioarekin bat etortzeari buruz duen iritzia eman dezan. Txosten hori, jaso ondoren, lan-taldeko kideei igorriko zaie.

2. Halaber, Parlamentuko zerbitzu juridikoei igorriko zaie, txosten bat egin dezaten legegintzako egintza proiektuak Nafarroak arlo horretan dituen legegintzako eskumenetan duen eraginari buruz, subsidiaritatearen printzipioa betetzeari dagokionez. Txosten hori bi asteko epean eginen da, eta legelari nagusiak lan-taldeko kideei igorriko die.

3. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du aurreko idatz-zatietan aipaturiko epeak luzatzea, beharrezkotzat jotzen duenean.

3. Kasuan kasuko txostenak jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak lan-taldearen bilkura deituko du, gutxienez ere 48 ordu lehenagotik, eta deialdian adieraziko da lan-taldearen lanak amaitzeko epemuga.

4. Ezarritako epearen barruan, lan-taldeak eskatu ahalko du legegintzako proiektuari dagokion alorrean adituak diren funtzionarioen eta pertsonen agerraldia. Lan-taldeak zehaztuko du bere

lanen egutegia, halako moduz non egin dezakeen duen irizpena amaituta egonen baita deialdian ezarritako egunerako.

5. Lan-taldeak uste badu aztertu duen proiektuak subsidiaritatearen printzipioa urratzen duela, arrazoituta irizpen bat egin eta Parlamentuko lehendakariari igorriko dio, horrek Gorte Nagusietara igor dezan. Aldiz, uste badu legegintzako proiektua aipatu printzipioarekin bat datorrela, iritzi horren berri emanen dio lehendakariari, horrek Gorte Nagusiei jakinaraz diezaien, lan-taldeak hala eskatzen badu espresuki.

6. Irizpen arrazoitua Gorteetara igortzeko epea lau astekoa izanen da gehienez, legegintzako egintza proiektua Nafarroako Parlamentuan jasotzen denetik hasita.

7. Lan-taldearen lanak ohiko bilkuraldietatik kanpo egin behar direnean, legebiltzarreko lehendakariaren esku geratuko da lan horiek egiteko beharrezkoak diren egunak gaitzeko ahalmena.

Lehenengo xedapen gehigarria.

1. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek heldu den azaroaren 10eko 12:00ak baino lehen jakinaraziko diote Parlamentuko lehendakariari nor izanen den Europako Gaietako Lan-taldean izanen duten ordezkaria, bai eta haren ordezkia ere. Lehendakariak lan-taldearen eratze-bilkura deituko du. Aipatu bilkura heldu den azaroaren 11n izanen da, eta iragan urriaren 29an, 11:00etan, sartutako Ondorengotzei buruzko Erregelamendu proposamenaren ebaluazioa heldu den azaroaren 19a baino lehen amaitu beharko da.

2. Europar Batasunaren erregelamendu proposamen hori Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, 2. arauan aurreikusitako txostena eman dezan, ahal izanez gero.

Azken xedapena.

1. Erabaki hau igorriko zaie Nafarroako Gobernuari eta parlamentu-taldean eta foru parlamentarien elkarteetan eledunei.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta 2009ko azaroaren 9an hartuko du indarra.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2009ko urriaren 16an onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2009ko urriaren 16an onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2008ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2009ko urriaren 16an onetsitako erabakiak

Lehenengoa. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iriste Plan bat presta dezan nekazari eta abeltzain gazteen lehen sektorerako.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmenak egin ditzan Nafarroako eremu eta eskualdeetan jarduten diren enpresaburuen elkarteekin, nor bere eskualdeko enpresa txiki eta ertainen artean susta eta heda ditzan kasu bakoitzari egoki dakizkiokeen I+G+Bko programak nahiz kasu bakoitzean I+G+Bko prozesuan alde aurreko azterketak egiteko laguntza publikoak, harik eta ezarri arte.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

1. Etorikinei buruzko informazioa sustatzea, delitu-jarduerekin edo indarkeriazkoekin zerikusirik ez duten jarreretatik abiatuta eta Nafarroa erakitze eta garatze aldera egiten duten ekarpen ekonomikoa eta soziala aintzat hartzen duten jarrera integratzaile eta kultura artekoak baliatuta.

2. Etorikinei erraztea eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa lortu ahal izatea, batez ere administrazio-egoera irregularrean egoteagatik

zer eskubide eta betebeharrak dituzten jakiteko aukera gutxiago dituztenei, eta egiazko aukera berdintasuna babestea.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren irudia bere aniztasun osoan bultzatzea dezan erkidegotik kanpora, eta ez dezan, arrazoi politikoak direla medio, sustapen horretatik kanpo eskualderik utzi, eta kultur errealitateak ezagutaraz ditzan, Nafarroak berezkoak dituen bi hizkuntzak errespetatuta.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, azpiegituretan inbertitzeaz gain, ospitaleetako larrialdi zerbitzuak berrantolatzea ditzan eta aintzat har ditzan profesionalen egindako proposamenak, ospitaleko nahiz ospitale kanpoko larrialdiei eta oinarrizko osasun laguntzari dagokienez.

Seigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeari laguntzeko zentzuzko hezkuntza- nahiz prebentzio-eginkizunak itzul diezazkien, haien sorrerako espiritarekin bat, eta aurrekontuetan haiendako behar adina diru jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du, haurdunaldia nahita eteteari buruzko legea onetsirik, Nafarroan osasun publikoak egiaz eman ditzan haurdunaldia nahita eteteari buruzko legeak aurreikusitako kasuetan emakume nafarrei dagozkien zerbitzuak.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du presta ditzan Adimen-osasunari buruzko Plan Integrala eta adimen-gaixoaren eskubideen gutun bat, bai eta haietaz arduratuko diren zerbitzuena ere, hots, zerbitzuen gutun bat, erreforma psikiatrikoaren aplikazio gisa eta kontuan harturik herritarrek eskubidea dutela gizarte-zerbitzuak eta erkidego-laguntza izateko, arlo psikiatrikoko zerbitzuen zabaltze modura hain zuzen. Azken batean, gure erkidegoko adimen-osasunari buruzko estrategia definitzea, eta horretarako beharrezkoa da Gizar-

te- eta Osasun-Plana egitea, behar-beharrezkoa dena Adminen-osasunari buruzko Plan Integralari eta mendekotasunarekin zerikusia duen orori ekiteko.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak laguntza berezia eta premiazkoa eskatzen du lurralde desoreka eta biztanle galera pairatzen duten landa eremuentzat, etxebizitza publikoaren arloko jarduketak errazte aldera, herrietan biztanleak mantendu eta finkatu ahal izateko.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lau hilabete epean Errepideen II. Planaren betetze mailari buruzko azterketa aurkez dezan Parlamentuan.

Orobat eskatzen dio ezen azterketa horretan azal dezan Gobernuak zer asmo duen plan horretan jasotzen diren eta bete ez diren jarduketei dagokienez.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du lau hilabete epean Nafarroako Errepideen III. Plana aurkez dezan Parlamentuan.

Hamaikagarrena. Parlamentu honek begirunea eta aintzatespena erakutsi nahi dizkie Nafarroako udalei; izan ere, administrazio publiko diren aldetik, beste administrazioen eskubide eta aintzatespen berak izan behar dituzte, bai eta legitimitate osoa ere, era guztietako baliabideak izateko, parte hartzeko eta erabakitzeko, herritarrei zerbitzuak berme guztiekin emateko bere eginkizuna garatu ahal izateko.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak hitzematzen du Nafarroako erakunde publikoek sustatu eginen dituztela jarduera publikoaren nahiz pribatuaren eremu guztietan gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren lege aldaketak eta neurri politikoak.

Hamairugarrena. Nafarroako Parlamentuak hitzematzen du Nafarroako erakunde publikoek sustatu eginen dituztela pertsona homosexualak eta heterosexuak legearen aldetik guztiz parekoak izanzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren lege aldaketak eta neurri politikoak.

Hamalauugarrena. Nafarroako Parlamentuak hitzematzen du beharrezkoak diren lege aldaketak eta neurri politikoak baliatuko dituela Nafarroaren aniztasunaren errespetua, defentsa eta moldaera demokratikoa ziurtatzeko.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak gure autogobernua aldezteko eta garatzeko konpromisoa adierazten du, eta autogobernua

sakontzeko apustu sendoa egiten du, sinetsita baitago funtsezko tresna dela Nafarroaren garapen sozial, ekonomiko eta demokratikorako.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak zerga-iruzurra desagerrarazteko konpromisoa adierazten du, eta, hartara, baliabide berriz eta balio handiagokoz hornitutako ikuskatze nahiz pedagogia arloko ekimenak abiaraziko ditu.

Hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak hitzematzen du azpiegituri bultzada iraungarria eman diela ingurumenaren nahiz ekonomiaren aldetik, gure erkidegoa egituratzeko irizpideak oinarri eta gardentasunaren, argitasunaren, eragingarritasunaren eta efizientziaren irizpideak baliatuta eztabaidatu eta planteatuko direnak, opakutasun-gune guztiak ezabatuz plangintza, esleitze eta betetze prozesuetan.

Hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari exijitzen dio lehenbailehen has dezan trafikoko arloko eskumen osoa eskualdatzeko prozesua.

Hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du gutxienez ere ondoko gaiak eraman ditzan Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko Lankidetzeta Batzordearen negoziatziora:

1. Legegintzaldi berri oso bat abiatzea baldin eta Legebiltzarra legegintzaldia amaitu baino lehen desegiten bada.

2. Nafarroako Parlamentuari autonomia handiago eman ahal izatea bilkuraldiak eta osoko bilkuren gehieneko kopurua mugatzeko orduan.

3. Foru Hobetzearen testuan jasotzea gure erkidegoan gaur egun erreferentzia-erakunde direnak, esate baterako Arartekoa eta Nafarroako Kontseilua.

4. Zehatzago mugatzea Comptos Ganberaren eskumenak eta Kontuen Auzitegiarenak, gerta litezkeen eskumen-gatazkak ekidite aldera.

5. Hizkera argitu eta gaurkotzea, berdintasun politikei buruzko araudi berriaren kariatara, "emakume izaerari" buruzko aipamenak kenduta.

6. Dagoeneko desagertu diren hainbat figura kentzea testutik, esate baterako merkataritzako artekariak eta kanbio eta burtsako agenteak.

7. Nafarroako Auzitegi Nagusiko fiskal nagusiaren pisua areagotzea justizia administrazioaren eremuan.

8. Araudi osoago bat sartzea, Nafarroak Europako erakundeetan parte hartzeari dagokionez,

hala aldebiko alderditik nola aldeaniztunetik, beste autonomia erkidego batzuek beren estatutuak aldatzean egin duten legez.

Hogeigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du bere konpromisoa sendoa dela terrorismoaren aurkako borrokan, horixe delakoan ankerkeria kriminalaren biktimei babesa eta ordaina emateko modurik onena. Nafarroako Parlamentuak alderdi politikoen batasunaren aldeko apustua egiten du, horixe delakoan hiltzaileak adoretzen eta babesten dituztenak isolatzeko biderik onena.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoenganako babes sendoa, hala nola Foruzaingoarenganako eta udaltzaingoarenganako, buru-belarri lan egiten baitute terroristek eta haien inguruneak ezarri nahi duten indarraren legea nagusi ez dadin, helburu horiek berak lortze aldera epaileek eta fiskalek egindako lana ahanzi gabe.

3. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die, berriz ere, Nafarroako herritarrei, ahaleginak batu ditzaten, indarkeriaz baliatzen direnak eta hiltzaileak isolatze aldera, burugabekeria terroristaren totalitarismoaren aurrean demokrazia eta hitzaren indarra nagusituko diren gizarte bat lortzearren.

Hogeita batgarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du genero indarkeria desagerarazteko eta berdintasun, tolerantzia eta errespetu balioetan oinarritutako hezkuntzaren aldeko bere konpromiso sendoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du areagotu ditzan dituen baliabide guztiak tratu txarrak jaso dituzten emakumeen esku jartzeko ekintzak, biktimek segurtasunez babestuen direla eta eragingarritasunez laguntzen zaiela sentitze aldera.

Hogeita bigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabete epean taxu dezan Foru Komunitateko Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Kudeaketa Plana edo Eredua, zehaztearren eta argitzearren ez soilik plantilla gehiegizkoa ote den, ezpada langile publiko bakoitzak zer funtzio egin beharko lituzkeen departamentuetako bakoitzean, zer eragin izanen lukeen teknologia berrietara egokitzeak, departamentu bakoitzean zer eragin izanen lukeen administrazio izapideak eta eragozpenak murrizteko lege berriak eta zer prestakuntza jaso beharko lukeen funtzionario bakoitzak unean-unean herritarrentzako zerbitzuak hobetze aldera, Nafarroako Administrazio Publikoak I. kapituluan bere gain hartzen duen aurrekontu-zama ahalik eta gehien errentabilizatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak orobat premiatzen du Nafarroako Gobernua ahalegin handiena egin dezan Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen hitzarmen kolektiboa desblokeatzeko, bake soziala lortze aldera, zeina beharrezkoa baita nafar guztien zerbitzuko administrazioa zaluagoa, hurbilerrazagoa, eraginkorragoa eta modernoagoa izan dadin.

Hogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitateko Kontratu Publikoari buruzko Legea berriku dezan, halako moduz non esparru juridikotik aztertuko baita ea legean kontratazio formula berriak jaso daitezkeen, lehenetsuna emate aldera, ezgaitasuna duten pertsonentzako laguntzaren testuinguruan, irabazi asmorik gabeko entitateei, eta, horrenbestez, hiru hilabete epean Legebiltzarrera igor dezan foru lege proiektu bat, aldaketa horiek jasoko dituen.

Hogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Parlamentu honek krisiaren aurka onetsitako neurriei jarraikiz, inbertsioetarako nahiz zirkulatzailerako laguntzak eta abalak kudeatzeko sistemak egin beharreko aldaketak susta ditzan, halako moduz non izapidez azkartuko baitira eta enpresek hobekiago eta azkarrago eskuratu ahal izanen baitituzte laguntza horiek, eta aldaketak egiten baitira kudeaketa eremuan, azpimarra jarritzatik bat auditoretza lanez arduratzen diren enpresa publikoen zereginean, eta zehazki, NAFINCO eta SONAGAR enpresa publikoengan.

Hogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahaleginak eta bitartekoak biderka ditzan Zerga Iruzurra-aren aurkako Plana garatze aldera, iruzurrezko eragiketak berreskuratu ahal izateko eta diru publikorako dagokiona berreskuratzeko, eta, halaber, planaren helburuak zabaltzeko eta haren emaitzak hobetzeko, eta herritarrei ikusarazteko Foru Komunitatean fiskalitateak justizia soziala esan nahi duela.

Hogeita seigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Nafarroako Agenteen Sarea Europan" sor dezan, zeinak lan egiten baitu gure Foru Komunitatea Europako herrialdeetara proiektatzen gure errealitate ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala denaz bezainbatean. Agente horiek, hain zuzen ere, harremanetan jarriko dituzte gure enpresa sarea eta gainontzeko herrialdeetakoa, interes komunak hautemanez eta sinergiak eta kontaktuak erraztuz, merkataritza-harreman berriak eta egonkorak lortzea helburu.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Nafarroako Agenteen Sarea atzerrian” sor dezan, zeinak lan eginen baitu gure Foru Komunitatea atzerriara proiektatzen gure errealitate ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala denaz bezainbatean. Agente horiek, hain zuzen ere, harremanetan jarriko dituzte gure enpresa sarea eta gainontzeko herrialdeetako, interes komunak hautemanen eta sinergiak eta kontaktuak erraztuz, merkataritza-harreman berriak eta egonkorak lortzea helburu.

Hogeita zazpigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du produkzio-eredu berri bat taxu dezan, legegintzaldi honetan abian jarritako ekimenen esparruan, Moderna Plana kasu, Komunitatearen etorkizunearan balioko duena ekonomia-ziklo negatiboen eragina saihesteko, batik bat enplegua, baina orobat balioko duena Nafarroaren orainean hazkuntza ekonomikoa bultzatuko duten oinarri sendoak jartzeko. Hazkuntza ekonomikoak hainbat zutabe izan behar baititu, eta iraungarritasunak zeharkako osagaia izan behar du, elkarrizketa sozialarekin eta langileen prestakuntza teknikoarekin batera. Hazkuntza ekonomikoak Nafarroa indartsu ageri den eremuak bultzatu behar ditu, bereziki energia berriztagarriak, esparru biomedikoa eta farmazia-industria eta nekazaritza arloko industria. Lanbide Heziketak eta Unibertsitate Publikoak, berriz, hezkuntzaren sektorerantz bideratu behar dute eredu ekonomikoa, talentuaren aldeko apustua egite aldera, garapen ekonomikoaren oinarritzko osagaia den aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektore publikoak bat egin dezan, Nafarroaren garapen sozialerako funtsezko inbertitzailea den aldetik, Foru Komunitatearen etorkizuneko garapena kapitalizatu behar duten gainontzeko sektoreekin; izan ere, inbertsio publikoak enplegua sortzen du, epe ertainerako eta luzerako itzulkinak eragiten ditu eta lehiakortasun handiagoa dakar, sektore pribatua erakartzen duten zenbait sektoreen indarberritzen baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ibilgailuen sektorearentzako laguntza babes dezan, I+G+Bko lerroak areagotzen lagunduko dioten politika zehatzen bidez, eta teknologia zentroen eginkizuna indartu dezan, espezializazioaren mesedetan indartu ere.

Hogeita zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko konpromisoa berresten du; izan ere, Legebiltzar honek onetsitako legeari jarraikiz, entitate horri esleitu zaio Nafarroako goi mailako hezkuntzaren zerbitzu

publikoa, irakaskuntzaren, azterketaren eta ikerketaren bidez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamentuaren bitartez hizketan has dadila Unibertsitate Publikoarekin, gradu nahiz graduondoko titulazio berriak ezartzeko jarraibideak ezartze aldera, Unibertsitate Publikoa kalitatearen eta bikaintasunaren aitzindari izan dadin Europako goi mailako hezkuntzagune berriaren esparruan.

3. Nafarroako Unibertsitate Publikoak esleitu zaizkion helburuak eragingarritasunez eta zorrotasunez bete ahal izan ditzan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide eman diezazkion unibertsitateari, eratu zeneko helburuak behar bezala betetze aldera; hartara, urte anitzeko finantzaketa plan bat ezarriko da, bide emanen diona unibertsitateari etorkizun hurbila segurtasunez eta patxadaz antolatzeko.

4. Bi alderdien arteko leialtasun printzipiotik abiatuta helduko zaio urte anitzeko finantzaketa plan horri. Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere egoerari buruzko informazio osoa eta zehaztua eman behar du, datuak, aldagaiak eta beharri-zanak ezagutze aldera. Nafarroako Gobernuak, berriz, argi izan behar du Europako goi mailako hezkuntza-gunea ezin dela doan ezarri, eta gradu nahiz graduondo berriak, hala nola ikerkuntza politika eta eleaniztasuna, kuantifikatu eta aurrera atera beharreko erronkak direla.

Hogeita bederatzigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko urte anitzeko planaren esparruan, ingelesaren irakaskuntza sustatzeko hartu beharreko neurriak har ditzan.

2. Ikasleei dagokienez, ondoko neurriak har litezke, besteak beste:

– Goi mailako irakaskuntzan sartzeko eskatzen den ingelesaren ezagutza maila igotzea.

– Ingelesaren irakaskuntza bultzatzea, NUPetik irteten denean behar bezalako maila eskatuta, eta ingelesa ikastea erraztea, unibertsitateko Hizkuntzen Eskolako giza baliabideak eta baliabide materialak indartuta.

– Irakasgaiak ingelesez ezartzea arian-arian, bi hizkuntzetako irakaskuntza helburu.

– Ingelesez hitz egiten duten herrialdeetako egonaldiak sustatzea, hizkuntzan erraz moldatzeko bitarteko gisa.

3. Irakasleei dagokienez, ondoko neurriak har litezke, besteak beste:

– Ingelesa kastea erraztea, unibertsitateko Hizkuntzen Eskolako giza baliabideak eta baliabide materialak indartuta.

– Irakasle funtzionarioei birziklatzeko aukera ematea, ikastaro estentsiboan eta trinkoen bidez, hizkuntza horretan irakasteko konpromisoarekin.

– Ingelesez hitz egiten duten herrialdeetako egonaldiak sustatzea, hizkuntzan erraz moldatzeko bitarteko gisa.

Hogeita hamargarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakasleei atzerriko hizkuntzen alorrean hasierako eta jarraipeneko prestakuntza emateko plan bat egin dezan, eredu elebidunak hedatu ahal izateko; plan horretan sartu beharko dira unibertsitate publiko-arekiko akordioak eta beka-deialdiak, etorkizuneko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek hizkuntza-gaitasun egokia lor dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoa den arau-esparrua gara dezan, atzerriko hizkuntzak eskaintzen dituzten hezkuntza-ereduak antolatuko dituen.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hizkuntza-eskoletan behar adinako postu-kopurua berma dezan, helduek modua izan dezaten atzerriko hizkuntzak ikasteko; halaber, urratsak egin ditzan aukera egon dadin Hizkuntza Eskolak ofizialki kredita ditzan gaur egungo erreferentzia-esparru europarreko mailak.

Hogeita hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat presta dezan, lanbide-heziketako ikastetxeen inguruan “campus teknologiko profesionalak” abiarazteko, Nafarroako eskualde ezberdinetan berrikuntza, prestakuntza eta garapenaren suspergarri gisa arituko direnak. Prestakuntza-gune horiek ezaugarri dituzte prestakuntzaren eta enpresaren arteko harremana, jakintzaren transferentzia eta ekintzailetasunaren sustapena.

Hogeita hamabigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du unibertsitate-beken politika orokorra berrikustera; gutxienez ere, honako arlo hauetan:

– Gradu-ikasketak egiteko beka: zenbatekoen egokitasuna eta beka eskuratzeko betekizunak.

– Graduondoko ikasketak egiteko beka: zenbatekoen egokitasuna, beka-kopurua eta beka eskuratzeko betekizunak.

– Erasmus beka eta kidekoak: zenbatekoen egokitasuna eta beka eskuratzeko betekizunak.

– “Nafarroa” beka bereziak eta kidekoak: zenbatekoen egokitasuna, beka-kopurua eta beka eskuratzeko betekizunak.

2. Nafarroako Parlamentuak foru gobernua premiatzen du Legebiltzarrean 2010eko urriaren 1a baino lehen aurkez ditzan deialdi berriak, hautesmandako beharrezko ekonomiko berriei 2011ko aurrekontuan erantzuna eman ahal izateko.

Hogeita hamahirugarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako gobernua premiatzen du familia-politika efiziente eta eraginkorrak taxutu ditzan, ugalkortasuna sustatzeko eta familiako nahiz laneko bizitza bateragarri egiteko, 0-3 urteko zikloaren hedapena eta aplikazioa eta bertako prestazioak bermatuz, halako moldez non erantzun hobea emanen baitzaio familien gaur egungo beharrezkoen eta familia-mota ezberdinen errealitateari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak gara ditzan haur hezkuntzako lehen ziklora sartzeari dagokionez aukera-berdintasuna bermatzeko, eta dagoen eskariari aurre egiteko behar adina postu sor ditzan.

Hogeita hamalauugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasunaren esparru orokorrean kudeaketa-eredu berri bat ezar dezan, gastu publikoan efizientzia handiagoa erdiesteko modua emanen duena.

Hogeita hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrari proiektu bat aurkez diezaion, 2009. urte hau amaitu aurretik, zeinean adimen-osasuneko sareko baliabide guztiak zuzendaritza bakar baten pean bateratuta agertuko baitira, horien koordinazio hobea eta optimizazioa lortze aldera.

Hogeita hamaseigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrari Iruñeko ospitaleak bateratzeko plan bat aurkez diezaion, 2010eko irailaren 1a baino lehenago. Plan hori Foru Komunitatearen beharrezkoen arabera izanen da, eta bideratuko da ospitale-gune bakarra izatera, pazienteak oinarri hartuz egituratua eta antolatua, eta zerbitzua kalitate-, eraginkortasun- eta efizientzia-mailarik handienarekin optimizatuko duena. Gune hori antolatzean funtsezko zenbait prozesu hartu beharko dira ardatz gisa; besteak beste, osasun-laguntza-koak ez diren zerbitzu orokorren integrazioa, zerbitzu zentralen plangintza integrala eta alor kliniko funtzionalen garapena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du parlamentu-taldeekin adostu dezan Iruñeak etorkizunean izanen duen ospitale-gune bakarraren izena, erreferentzia gisa harturik "Nafarroako ospitale publiko" gisa duen izaera.

Hogeita hamazazpigarrena. Halaber, Nafarroako Parlamentuak foru exekutiboa premiatzen du Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Legea bete dezan, eta Legebiltzar honi berehala bidal diezazkion sei hilabetean behingo txosten nahitaezkoak, legeak indarra hartu zuenetik aurkeztu behar izan zituenak, legearen xedapenen betetzearen berri izan ahal izateko.

Hogeita hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen ditu lankidetzak hitzarmen bat sina dezaten 2010eko martxoaren 31 baino lehen, Zaragoza-Iruña Abiadura Handiko Linea eraiki eta finantzatzeko, Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2009ko maiatzaren 16an sinatutako protokoloan ezarritakoarekin bat.

Hogeita hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean eraikiko diren plataforma logistikoak garatzeko beharrezkoa den bultzada eman eta azkar dezan; izan ere, plataforma horiek balioa dute Foru Komunitateak behar duen lehiakortasun, ekonomia nahiz produkzio garapenean aurrera egiteko, Europako erkidegorik aurreratuenen artean erreferentzia izatea helburu.

Berrogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du azterlan sakon bat egin dadin, nekazaritzaren sektorearekin ados jarrita, Nafarroako Ubidearen ureztalur berriak behar bezala bideratzeko, halako moduz non ahal den neurririk handienez aprobetxatuko baitira inbertsio horretatik heldu diren potentzialtasunak eta nekazarien etekin handiena lortzera bideratuko baitira ahaleginak, inbertsioaren erantzukizuna nekazariena ere badelako, gure erkidegoko nekazaritzako industriaren sektorearen potentzialtasunen arabera, sektore hori gure Barne Produktu Gordinarekin alderatuta garrantzitsuenetako eta aipagarrienetako bat izaki.

Berrogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du 2010eko otsailaren 1a baino lehen aurkez dezan Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuaren azterketa, eginda egon behar baitzuen.

Berrogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du enplegu eta enplegarritasun politiken azterketa sakona

egin dezan, batez ere biztanleria aktiboaren baitan krisiaren ondorioak gehien pairatzen ari diren sektoreei zuzendutakoak, berrogei urtetik gorako langileei hain zuzen ere, langabezia daudenen % 44tik gora egiten baitute, baina albo batera utzi gabe 25 urtetik beheitikoak edo emakumeak; hartara, talde horiei zuzendutako prestakuntza programak sustatuko dira, horien lan-aukerak eta lanbide-gaitasuna areagotze aldera.

Berrogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako eskualdeek energiaren alorrean dituzten beharrezkoak buruzko azterlan bat egin dezan lehenbailehen, zeinari esker, enpresa hornitzaileekiko kasuan kasuko hitzarmenen bidez, energia elektrikoa eta gasa banatzeko sareak hobetu ahal baitira, bai eta ordezkiko energia iturriak sustatu ere, halako moduz non helburu hori bera tresna bat izan den baita krisi-uneei aurre egiteko; hartara, beharrezkoak diren obra publikoak abiaraziko dira, eta horrek enplegua sortuko du eta aukera berdintasuna hobetu ahal da Foru Komunitateko eskualdeetan.

Berrogeita laugarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ahaleginak ugaritu ditzan mendekotasun-graduak kalifikatzeko beharrezkoak diren izapideak azkartze aldera, mendekotasun-mailaren eta -graduaren balioespen eta ebazpen azkarrago eta arretatsua lortuz, eta kasuko baremoa ekitatez eta zuzentasunez aplikatuz, baina halaber, malgutasun eta neurritasunez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du egokiak diren neurriak har ditzan, mendekoen zerbitzuan diharduten pertsonen alta har dezaten gizarte-segurantzian.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lanbide-trebakuntzako prestakuntza-ibilbideak susta ditzan mendekotasunaren alorrean.

Berrogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du azterte- eta hausnartze-saio bat egin dezan eta, bideragarri izanez gero, gure Foru Komunitatean administrazio-organo berri bat ezar dezan, alderdi-entzat lotesle izan dena, mendekotasun-gradu eta -mailaren aintzatespenari buruzko desadostasunek eragindako erreklamazioak ebatziko dituen.

Berrogeita seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du krisi ekonomikoaren ondorioak modurik larrienez jasaten ari diren familiei eta pertsonen zerbitzua emateko laguntza-programak eguneratu eta apli-

katzera, Foru Komunitatearen administrazio-egitura sendotzeari dagokionez batez ere, jadanik existitzen diren langileria-baliabideen bitartez, halako moduz non foru administrazioari jardun-ahalmen eta lastertasun handiagoa emanen baitzaio zerbitzuen gutunean aitorturiko eskubideen bermerako neurrien aplikazioari dagokionez.

Berrogeita zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarrizko errenta hartzea baldintzatzen duten prestakuntza-ibilbide eta -programa guztiak berri-ikus ditzan; izan ere, oinarrizko errenta Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubide subjektibo gisa aitortua da. Helburua da ibilbide horiek aintzat har ditzaten Nafarroako enpresen errealitatea, Mendekotasun Legea bera bezalako legegintza-sinergiekin sorrarazten dituzten enplegu-aukera edo -nitxo berriak, eta toki-administrazioetatik sor daitekeen eskaera; hori guztia, itun sozialen esparruaren nahitaezko gerizpean.

Berrogeita zortzigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahaleginak areagotu ditzan, Donejakueren urte sainduaren ospakizunak direla-eta 2010ean etorriko zaizkigun erromes eta bisitari guztiak gertakari horren pareko laguntza eta harrera izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gertakari horrek ematen duen aukera aprobetxa dezan, krisi-une honetan gure erkidegoaren garapen ekonomikoaren suspergarri bihur daitezten kultura eta turismoa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrean abenduaren 31 baino lehenago aurkez dezan 2010ean zehar aurrera eraman nahi dituen ekimenen multzoa, Turismo Kulturaleko Planean eta Donejakue Bidearen Departamentuarterako Plan Orokorrean (taldeek aho batez eskatu zituztenak eta Gobernuak joan den apirilaren 28an aurkeztuak) jasotako jarduketan ildotik.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintza-multzo horren prestaketan eta abiarazpenean aintzat har ditzan nazio-ko Gobernua, Donejakueren ibilbidearekin zerikusia daukaten autonomia-erkidegoetako administrazioak, toki administrazioak, lagun-elkar-teak eta aipaturiko ibilbidean diharduten eragile kultural, turistiko, ekonomiko eta sozialak.

Berrogeita bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresen eta sindikatuen arteko bitartekotzari ekin diezaion berehala, zertarako eta, gaur egungo krisi-egoeran, eta aldi hau bermerik handienarekin igarotzeko behar den bake soziala erdiestearren,

enpresen eta langileen arteko hitzarmenak berri-itu eta eguneratzeko prozedurak desblokeatu ahal izan daitezten; izan ere, egoera horrek ia 55.000 langileri eragiten dio, gaur egun izoztuta eta negozi-azio-aurreikuspenik gabe dauden 124 hitzarmen izaki. Horrek zailtasun gehigarri bat sorrarazten du, gaur egungo krisi-egoeran saihesten ahalegin-du beharrekoa.

Berrogeita hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak bere aldekotasuna adierazten du ahal den eperik laburrenean Nafarroako abiadura handiko korridorea eraikitzeari dagokionez, eta, horregatik, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu berehalakoan sinatzera Nafarroako abiadura handiko korridorea eraiki eta finantzatzeko hitzarmena.

Berrogeita hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak bere aldekotasuna adierazten du Nafarroarentzat estrategikoak diren azpiegiturak eraikitzeari dagokionez, hala nola Medinaceli-Tutera autobia eta Pirinioetako autobia, eta Iratxeko Paradore edo proiektuan dauden zentro teknologikoak egiteko obren beharra aldarrikatzen du; horregatik, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean azpiegiturei eta inbertsioei buruzko akordio bat sinatzera, zeinaren bitartez epeak ezarriko baitira Tutera-Medinaceli eta Pirinioetako autobietarako eta Iratxeko Paradorearen eta zentro teknologikoen obretarako.

Berrogeita hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du terrorismoaren aurkako itun politiko eta sozial bat abiaraz dezan, horren bidez indar politikoen arteko adostasunik handienaren eta gizarte-partaidetzarik zabalaren alde apustu egiteko, bai eta Zuzenbide Estatuaren, Estatuako Segurtasun Indar eta Kidegoen, Botere Judizialaren jardunaren eta arau-esparru egokiaren esanbidezko babesaren alde eta terrorismoaren biktimen aintzatespen merezi eta beharrezkoaren alde ere.

Berrogeita hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskumen-eskualdaketa prozesua burutzera, LORAFNAn oinarriturik; horretarako, Transferentzien Batzordeak egutegi bat onetsi behar du, geroko utzitako eskualdaketa guztiak barnean hartuko dituen, prozesua era horretan ahalik eta denbora-eperik laburrenean amaitzeko.

Berrogeita hamalagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri zehatzen bitartez erkidego osoaren lurralde-orekaren alde apustu egiten segitzera; eta, Pirinio-

etako haranei dagokienez, 2010-2012 eperako Piri-
nioen II. Plana presta dadin.

Berrogeita hamabosgarrena. Nafarroako Par-
lamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du
Legebiltzarrari aurkeztuko dizkion Nafarroako
Aurrekontu Orokorretan zorrotasunez aplika dai-
tezen gastu arruntari eusteko irizpideak eta, gastu
publikoari begira, austeritatekoak; eta lehentasuna
eman dakien produkzio-inbertsioei, bai eta zerbi-
tzu publikoak kalitatez eta iraungarritasun-irizpide-
en arabera emateari ere.

Berrogeita hamaseigarrena. Nafarroako Par-
lamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du
Nafarroako Foru Komunitatearen autonomia fiskala
modu arduratsuan erabiltzera, Espainiako Gober-
nuak zeharkako zergak igotzeko eginiko proposa-
mena ikusirik; helburua da zerga-igoera horrek
familien errenta erabilgarriari eta Parlamentu
honek onetsiriko suspertze ekonomikoko neurriei
egin liezazkiekeen kalteak saihestea.

Berrogeita hamazazpigarrena. Nafarroako
Parlamentuak bere babesa ematen dio landa-
ingurune osoari, jasaten ari den egoeraren aurre-
an; horregatik, Nafarroako Gobernua premiatzen
du behar adinako inbertsioak, lehen sektorearen
beharrizanen arabera, bidera ditzan, Nafarro-
an nekazaritza-elikagaien industriari bultzada era-
ginkorra emateko, eta landa-ingurunea babesteko
egoki diren neurriak har ditzan, multinazional han-
diek merkatuan esku hartzearen ondorioz inguru-
ne hark jasaten duen presioari erantzuteko; zehaz-
ki, marjina komertzialei dagokienez.

Berrogeita hemezortzigarrena. Nafarroako
Parlamentuak adierazten du, baita horren aldeko
apustu egin ere, hizkuntz politika ondare kultural
gisa tratatu behar dela, normaltasunez, eta ez
modu interesdunez eta alderdikeriaz erabiliz;
horretarako oinarri gisa, Euskararen Legea hartu
behar da.

Berrogeita hemeretzigarrena. Nafarroako
Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen
du Espainiako Gobernuarekin berehalakoan nego-
zia dezan gizarte-zerbitzuen eta mendekotasuna-
ren finantzaketari eta kostuari dagokienez harturi-
ko konpromisoen betetzea, zeinen arabera
Estatuak bere gain hartzen baitu horien % 33.

Hirurogeigarrena. Nafarroako Parla-
mentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du
publizitate instituzionalean eginiko gastu publikoa
drastikoki murriztera.

Hirurogeita batgarrena. Nafarroako Parla-
mentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du
oinarrizko osasun laguntzaren antolamendua

berrikus dezan, baliabideak herritarren eskariei
egokitzeko. Hartara, giza baliabideak nahiz balia-
bide materialak eta antolakuntzakoak ezarriko
dira, gaixoari behar bezalako zerbitzua emate
aldera, ondokoak helburu: mediku bakoitzak
hamar minutu izatea gaixo bakoitzarentzat eta,
helduen kasuan, eguneko 25 gaixo ikusi behar iza-
tea gehienez ere.

Hirurogeita bigarrena. Nafarroako Parla-
mentuak Gobernu Zentrala premiatzen du lehenbaile-
hen eta behin betikoz eraiki dezan Nafarroako
espetxe berria, eta eraiki eta berehala espetxeen
gaineko transferentzia egin dadin, Foru Hobetzean
aurreikusitakoarekin bat.

Hirurogeita hirugarrena. Nafarroako Parla-
mentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du
gizarte eragileekin batera prestatu, taxutu eta gara
dezan bestelako industria politika bat, enpresen
deslokalizazioko arrisku errealari aurre egiteko eta
Nafarroan sektore estrategiko berriak ezartzen
laguntzeko.

Hirurogeita laugarrena. Nafarroako Parla-
mentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euska-
rarekiko etsaitasunezko bere politika zuzendu
dezan, gure gizartearen hizkuntz eta kultur anizta-
suna aitor dezan, eta, azken batean, hizkuntza
politiken zehaztapen eta aplikazioan adostasuna
landu eta bila dezan, oinarri harturik herritarrek
beren askatasunaz eginiko erabilerarekiko begiru-
nea eta hizkuntzagatiko diskriminaziorik eza.

Hirurogeita bosgarrena. Nafarroako Parla-
mentuak adierazten du beharrezkoa dela Estatuko
aurrekontu orokorren eztabaidan Nafarroarako
inbertsioak handitzea. Horretarako, Nafarroako
parlamentu-taldeek lan egingen dugu arlo horretan,
helburu hori lortze aldera.

Hirurogeita seigarrena. Nafarroako Parla-
mentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere
lehentasun nagusia izan dadin langabeziaren aur-
kako borroka, eta apustu egin dezan garapen-
eredu indartsuago eta iraungarriago baten alde,
prestakuntzan, berrikuntzan, gizarte-politiken sen-
dokuntzan eta langileen babesean oinarritua.

Hirurogeita zazpigarrena. Nafarroako Parla-
mentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du
lehentasun gisa ezar dezan negutegi-efektuko
gasak isurtzeari buruz Kioton hartutako konpromi-
soak foru erkidegoan betetzea.

Hirurogeita zortzigarrena.

- Nafarroako Parlamentuak ETArek atentatu
terroristak gaitzesten ditu.

- Nafarroako Parlamentuak ETArI exijitzen dio armak eman ditzan eta berehala desegin dadin.

Hirurogeita bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du profesionalen esku jar ditzan beren lana egiteko baliabideak eta bermeak, halako moduz non Foru Komunitatean modua egonen den haurdunaldiaren borondatezko etetea egiteko, Parlamentu honek onetsitako legean xedatzen den bezala.

Hirurogeita hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta nazioko Gobernu premiatzen ditu itun bat sina dezaten, Nafarroako Foru Komunitatearen lankidetzaz esanguratsu eta egiazkoa ahalbidetuko duena Zaragoza, Tuter eta Iruña arteko Nafarroako abiadura handiko korridorearen eraikuntza eta finantzaketan, bai eta hura euskal Y-arekin lotzea ere, halako moduz non Nafarroak horiek eraikitzeke egiten dituen ordainketak hitzarmen ekonomikoa aplikatuz eta garatuz urtero Estatuari egiten dion ekarpenetik kenduko diren. Horren guztiaren xedea izanen da Zaragoza, Tuter eta Iruña arteko Nafarroako abiadura handiko korridorea ahal bezain laster hastea zerbitzu ematen.

Hirurogeita hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia premiatzen du bere irizpidea berehala zuzendu dezan zigor-arloko 5. zenbakiko epaitegiaren kokalekuari dagokionez eta, afera horri buruz iritzia eman duten erakunde ezberdinek adierazitako arrazoi ezin sendoagoak gogoan hartuz, organo judizial hori Tuteran era dadin.

Hirurogeita hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Justizia Ministerioa premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatea beharrezkoak diren organo juridikoz bidez hornitzera eta, edozein kasutan, berehalakoan ekin diezaion lan-arloko sala gelditzen den magistratuarekin osatzeari, Audientzia Probintzialari hiru magistratu gehitzeari, Iruñeko Erregistro Zibileko arduradun eskusibogisa magistratu berri bat gehitzeari, lehen auzialdiko eta instrukzioko Tuterako 5. epaitegia eta Lizarrako 3. epaitegia eratzeari, bai eta zigor-arloko eta administrazioarekiko auzien arloko epaitegi bana eratzeari ere.

Hirurogeita hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak berriro ere adierazten du komeni dela nazioko gobernuak Nafarroari zirkulazio-alarreko erabateko eskumenak eskualdatzea, eta, ildo horretatik, gobernu hori eta Nafarroako Gobernu premiatzen ditu transferentzia hori adostu dezaten, herritarrarentzako zerbitzua hobetze aldera eta, bestetik, koordinazio leiala gauzatzeko aldera etorkizunean Nafarroak izanen duen zirkulazio-

lazio-agintaritzaren, Estatu zirkulazio-agintaritzaren, mugakide diren autonomia erkidegoetako eta Frantziako lurralde mugakideetako arlo horretan dituzten agintari eskudunen artean.

Hirurogeita hamalagarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du Mendekotasunari buruzko legera bideratutako aurrekontu-dotazioaren zenbatekoa igo dezan behar den kantitatera iritsi arte, halako moduz non autonomia-erkidegoek beren aurrekontuetan % 33 izanen duten Estatuarengandik jasota, horixe baita, Mendekotasun Legearen arabera, finantzatzea dagokion kantitatea.

Hirurogeita hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du 420 euroko lanbide-laguntza ezohikoa arautzen duen Errege Lege Dekretua alda dezan, halako moldean non autonomia erkidegoetako gizarte-prestazioekin, eta zehazki oinarriko errentekin, bateragarri egin ahal izanen baita.

Hirurogeita hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen ditu behar diren elkarriketak egin ditzaten, Foruzaingoarentzat erretiro-adiaren aurrerapenari buruzko araubidea Polizia Nazionaleko funtzionarioentzat ezarritako bera izan dadin eta, kasua bada, polizia autonomikoek daukaten bera, Gizarte Segurantzaren sistemari eragiten dion zatian.

Hirurogeita hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du enpresaren eta langileen ordezkarien arteko elkarriketa eraginkorra lor dadin enplegu-erregulazio espedienteen izapidetzean, halako moldean non alderdien arteko akordioak erraztuko baitira, produkzio-jardueraren eta enpleguaren mailarik handienei eutsi ahal izateko, zeinek produkzioehunaren sendotzea ahalbidetuko baitute eta langileen eskubideak ziurtatuko baitituzte.

Hirurogeita hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du azpiegitura elektrikoak hobetzeko plan bat presta dezan, Nafarroako Energia Planean kokatua, horrela lortzeko datozen urteetan elektrizitate-hornidura ez izatea Nafarroaren garapen sozio-ekonomikoa mugatuko edo baldintzatuko duen faktore bat.

Hirurogeita hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du zertara eta, Foru Komunitateko ordezkariak handieneko eragile ekonomiko eta sozialekin batera, enplegua sustatzeko eta enplegarritasuna hobetzeko neurrien jarraipena eta ebaluazio iraun-

korra egin dezan eta, kasua bada, haiek alda ditzan, 2010ean ekonomia suspertzen has dadin.

Laurogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eman beharreko urratsak ugaritu ditzan, horrela lortu ahal izateko Nafarroak energia berriztagarrien arloko prestakuntzako erreferentziazko zentro bat edukitzea, IRENA-Energia Berriztagarrien Nazioarteko Agentziarekin lotura izanzen duena.

Laurogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Internet ikasgeletan modu seguruan erabiltzeari buruzko prestakuntza-programa pilotu bat gara dezan, funtsean haurrei eta gazteei zuzendurikoa.

Laurogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitatean telekomunikazioak garatzeko plan bati bultzada eman diezaion, zuntz optikoko sare bat hedatuz, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) eta jakintzaren gizartea herritarren, enpresen eta erakundeen artean sustatzeko asmoz.

Laurogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-programen ezarpena aurrera eramaten segi dezan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) curriculum-integrazioa eta irakasleen gaitasun digitala garatzea lortze aldera. Horretarako, datozen lau urteotan Integra TIC-IKT programa, Eskola 2.0 delakoan txertatua, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasle guztiak eta DBHko 1. eta 2. mailakoak hartzeraino hedatuko da.

Laurogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabakitasunez bultzada eman diezaion ingelesaren ikasketan oinarrituriko eredu berria irakasten duten ikastetxeen eskaintzari, behar adina baliabide bideratuz irakasleen prestakuntzara eta birziklapenera eta ikasleentzako eskolaz kanpoko murgiltze-jardueretara.

Laurogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskola inklusibo baten alde lan egiten segi dezan, ikasle guztiei aukerak eta erantzuna eskainiko dizkiena; batez ere, zailtasun gehien dauzkatenek, dela nolabaiteko ezgaitasunen batengatik, dela, immigrazioa edo beste arrazoiren baten ondoriozko desabantailazko baldintza sozioekonomikoak tarteko, eskola-atzeratasun garrantzitsua jasateagatik.

Laurogeita seigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak hedabideei eskatzen die gogoeta egin dezaten, beren kode deontologikoen esparruan, sexu-salerosketarekin zerikusia daukan publizitateari uko egiteari buruz, sexu-salerosketan diharduten erakunde mafiosoen negozioa eragozteko.

2. Nafarroako Parlamentuak hedabide guztiak premiatzen ditu prostituzioarekin eta jardun horrek pertsonen eskubideetan eragiten duen kaltearekin zerikusia daukaten jardueren edonolako publizitateari ezetza ematera eta publizitate hori kentzera, mundu osoko hedabide nagusiek jadanik egin duten bezala.

